

# ESCOLAN ERE MORRONTZAN





Frailtan «barrendero» izan zineten-on lanaren oroigarri.

Eskolan, Errenteriako fraile eskolan, baziren eskola guztietan bezala, irakasleak, fraile erdaldunak guztiak, eta ikasleak, handiak eta ttipiak, alferrak eta langileak. Eskolak, geinontzeko eskola guztien antzekoa izanik ere, bazuen berezitasunik, bazituen bere «barrenderoak».

Bizpahiru ikaslek osatzen genuen garbitzaileen taldea. Arduradun edo buruzagi denetan zaharrena izan ohi zen. Esperientziak erakutsiriko jakinduria oso gogoan hartzekoa zen. «Honoko frailea ez duk hain txarra, beste hori kazkagogor hutsa duk, harek berriz eskailerak eta zokoak behatza dantzatzuz aztertzen dizkik, beste hura etortzen baldin bada hautsa harrotu dezagun lehenbaitlen alde egin dezan...». Eta horrela, eguerdi eta arratsaldean, egunero, etengabe, ihardun behar izaten genuen. Neronek urte pare bat baino ez nituen egin, baina gogoan dauzkar Asentxio zana, Ibon, Arrillaga, Murua, eta abar. Ikasle ezezik, garbitasunaren morroi zirenak.

Sarritan entzun ohi genuen deia, erdara hutsean, noski, entzun ohi genuena. Norbait gaisotu zela eta gelan botaka hasten baldin bazen han joan behar izaten genuen gure eskoba, zerrauts eta palaz hondakinak jasotzera. Kalefazorako zerrautsa behar baldin bazen, hartu karroa eta Lasa tailerretara joaten ginen, edo ta Urangararen aroztegira zakua kargatu eta klaseak bukatu baino lehen berriro itzultzekotan. Halako poza ere eman ohi zigun gu zakua kargatzen ari ginen bitartean besteak kebradoekin buruaustetan ezinean ariko zirela pentsatzeak. Esan beharrik ere ez da, klasez kanpo iragan denboran esplikaturako ikasgaia gure gisa, ahal genuen bezala, ikasi beste erre-mediorik ez genuen izaten.

Barrenderoa gaiso gelditzen bazen besteren artean bete ohi zen bere zuloa, eta inoiz etxekoren bat ere joan ohi zen bere seme gaisotuaren lana egin zezan.

Frontoiaren garbiketak eman ohi zigun lanik gehien, eta, eskailerak izan ohi ziren aspergarrienak. Halaz ere, gogoan dauz-

kat garai hartako komunak. Oso komun gutxi zegoen hainbeste ikaslerentzat, eta askotan bazen komunean hain punteria onik erakusten ez zuen ikaslerik. Hori dela, eta komunak eta bere inguruak ongi ongarriturik egon ohi ziren. Horrelakoetan mangera lana izan ohi zen gehien bat gurea. Esku batez sudurrak itxi eta bestez mangera zuzenduz, istanpe batetan egin ohi genuen. Hala hobe. Inoiz beste norbait dutxaz bustitzeko egokierarik ere ez genuen galtzen.

Agian gu geu ez ginen nolanhiko aingeru izango, baina kuriosoa zen. Gelan arkatzen bat, kuadernoren bat, edo jostailuren bat falta ohi zenean, garbitzaileari lepora ohi zitzaion errua. «Se lo habrá llevado el barrendero» hitzak noiz nahi jalgi ohi zizkiguten. Egia esan, ez zigun batere onik egiten. Gure pekatua, bankuak mugitzerakoan tintontzirenbat ipurdiz gora botatzea besterik ez zen izaten. Baina bestelakoren famarik ere ematen ziguten. Zozoak beleari...

Honenbestez, ikusi ere ikusten da, garbitzaileak, barrenderoak alegia, beste bigarren mailako ikasle izan ohi zirela. Pedagogiaren eraginez ez bazen ere, halabeharrez nonbait.

Inoiz Fray Escobaren kontuak entzun izan ditugu, garbitasun lanez zerua nola irabazi ditekeen erakutsi izan zaigularik. Guk, ordea, besterik irabazi nahi genuen, eginiko lanari eskerrak, hiler eskola dohan eskura ahal izatea. Hauxe izaten zen gure pozik haundienetarikoa. Hilaren azkenean eskolako faktura eman ohi zutenean, gurea ondotxo ttipiagoea izan ohi zen, materiala eta kalefazioa baino ez bait ziguten kobratzen. Barrenderoak debaldeko (?) eskola izan ohi zuen, ongi merezia noski. Egunero, lanean hiruren bat ordu sartzen genituen.

Garai hartako eskolamolde, egitura, antolaketa, pedagogi eredu eta abarrekin batera, barrenderoak aipatzea egoki eta bidezko irudituz zait. Nori berea zuzenbidea.

MIKEL UGALDE